

LENINGRADO

Zail gertatu zitzaion judutarrei Ejiptotik irtezea. Ezinezko Errusiatik ateratezea. Antziñako Itsaso Gorria kupitu zan. Gaurkoak ez du erurririk.

Eraso gogorren azpian daude judutarrak Errusiako Gobernuaren-pean. Orain dela 50 urte, bi milia sinagogak bazituzten ere, gaur amabiren bat besterik ez dituzte. Ez daukate heberkeraz ezer argitaratzerik. Etzaie larunbata jai egiten utzi.

Eta judutarrak bezalaxe zapaldurik arkitzen dira an bizi diran georgiar, tartaro, mongoldar, armeniar eta kurdoak. Zapaldurik beren izkuntza, ohitura, lege, kultura, jolaskera eta abarretan.

Ona uelala izanik beren Israelera edo askatasuneko beste errialde batera irten nahi lukete judutar askok.

Ezin, ordea, atek itxirik bait daukate. Etzaie irteteko baimenik ematen. Gogor astinduko dira askatasun-zaleak.

Beraz, ez da batere arrizkeoa, ihes egin nahi izatea. Ez dakigu ala dan baiña onelako zerbaite erasten zaie Leningradoko auzipetuei.

Ihazko Ekainaren amabostean izan ziran detenuitak Smoly'ko aeroportuan. Ihes egiteko asmoa ahal zijoazten? Ez dakigu garbi. Leningradoko auzitegian garbitu gabe gelditu da beintzat.

Alaz guziz ere esku gogorra astindu du Leningradoko auzitegiak. Aietako bi erailteza erabaki du naiz-eta gero U.R.S.S.eko buruzagiak zigor latza ori barkatu. Besteentzat luzararako itzala eskeintzen zuan. Gerora larbutuak izan dira urta oiek.

Auzia, atek itxita izan zan. Etzitzaien sartzen utzi kanpoko lege-gizon eta berri-emalteei. Estuaren seguritatearen aurka pekatutzat joa izan zan egazkin ura berenganatu nahi izatea.

Mundu osoa jeiki zan Leningradoko auziaren aurka. Bidegabekeriaren aurkako sena duan guzia, alegia. Nahiz eskubikoak edo eta nahiz ezkerrekoak egin bidegabekeria biotz-oneko eta zuzentasun gose-egari diranak «non licet», ez, ori ez, deadar egiten dute.

Noiztik eriotz-epaiaekin zigortu ditek egazkin baitutzea? Bai ahal dago eruarren eta zigorraren artean berdintasunik?

Ez ahal du gizonak errialde batetik bestera aldatzeko eskubiderik? Zergatik ukatu zitzaion eskatu zutenean Errusiatik ateratzeko baimena?

Zergatik atek itxirik, isillean eta izkutuian, auzia erabaki nahi izan da?

Ona zuzentasun-zaleak egiten dituzten galderak.

Beste toki gehiagotan ere «zakurrak anka-utsik». Diktadura gorria ala zuria, beti diktadura, beti maltzur eta menderatzaille.

Baiña ikasi bezate bein betirako euskal-esaera zaharra: «odolkiak ordaiñetan».

'IT IS TOTAL' (MARCUSE)

Urik ez eta gainera txikitzea bai zen, hippiek St. Patrick-eko ugartearen errostea etsi zuten. Halere, Eire-ko ukatuaz, biziera berri bat, pentsaera Erresumarekin harremanetan jarraitu ondoren, beste bat erosi eta hain komunitate bat eraikitza, «gure gizartertiki» kanpo bizi izan dira.

Gure jaun andre agurgarriek zernahi pentsa bezate, hippiak ez dira ez ero eta ez munstro, eta genero egia eta arrazoi guzia dute. Eta hauxe da kokoa: GURE ZIBILIZAZIOAK EZ GAITTU BETETZEN. Ez ahal zerate konbentzitu gure sozietate osoa dagoela helburuetatik bazterturik eta gutzit alienaturik? Ez ahal zaudete konbentziturik gure zibilizazio guzia huskeriatan ari dela? Noiz konbentzitu gura ekonomikeria eta tenikeria guzientz mustrakeriaz?

Telebistan, automobilean, horiek guzientz bide datza zoria! Hutsa, hutsa eta hutsa dira konsumoko gizarate hunn xedeak. Pitkutara!

Uste dugu, hippiek frogatzen dutela, posible dela gizarate hunen balio guztiak sustraitik aldatzea. Hippiangan atzeman uste dugu egitako iraultzaren saiara bat.

Egitako iraultza hau sustraitzeka da, kalitatezkoa da, erabatekoa da. Marcuse-k dion bezala, it is total. Euan, erabateko iraultza hau egiten behar da. Gizarate total aldatu behar da. Ta uste dugu hippismoak, lehengo sozietatea goitiki behera berri bat, izatera berri bat, hitz baten gizarate berri bat altxako duela.

Gure Herriarrekiko, kalitateko iraultza total hau proposatzen dugu gasteok.

Ez duzua sentitzen bizimodu tentel hau ankar gora jaurlitoki eta hippiek erosteko diren ugarte horretara ihes egiteko gogo biziirik?

Ibon Sudupe

MONOD MINTZO

Beste batez agindu nuena betetzekotan natorkizue gaur. Eta Jacques Monod-en «Le Hasard et la Nécessité» (Zoria eta Halabeharria) liburua bikainaz bi hitz esango ditut.

Monod ez da artista bat, biologiari bat baizik. Alegia: zientzia gizon bat mintzo zaigu, eta ez letra gizon bat. Zientziari buruz mintzo zaigu ez Zientzia hori gaingiroki ezagutzen duen gizon bat, 1956ean Osagintzako Nobel Sari irabazi zuen jakintsu bat baizik. Arretaz entzun dezagun, beraz.

Zer dio Monod-ek? Zoritzarrez liburu irakurtzeko aukera izango ez duenari, zer nik esango? Nolatan edo zein hitzez bilduko hemen liburuaren muin barnea? Hitz honetaz beharbada: egarri. Jakintza egarri. Murgilduta gauden misterio osoa agertzen bait da Monod zortzaren lerroez bestaldean. Ilunpe ezin trinkoago hori ahaztu egiten zaigu askotan; eta oso egokia da Egiaren bilatzaile porrokatu hauek gogoratzeko. Alegia: munduaren izkuta ez duela gauroki Zientziak ez kamustu ez deuseztu, sakondu eta ilundu baizik. Ez digu Monod-ek aitortzeko bildurririk erakusten; eta Mauriac-en esakuntza ezaguna egiten du bere: «askoz ere sinetsi-eginago da erakaste jakintsu horrek diona, guk sinesten duguna baino».

Liburu hitzetik hortzera irakurtzea atsegin bat dela esan ondoren, barka bekik liburuaren ideia nagusi batzuk aipatzea. Irakurleari buruz jakingarrien zalzikidanak hain zuzen.

Ba genekien Monod zibernetikaren oso aldekoa dela. Berriago da, ordea, eta gutzit modaren kontra, zibernetikaren eta dialektikaren artean Monod-ek egiten dituen bereketak; bietan bigarrena oso mugatuz eta ahulduz. Dionez, Biologian ez dago egiazko dialektikarik, ezta eboluzioan ere.

Oso inportanteak dira, era berean, hizketari buruz «hizketa» hitza Hizkuntzalaritzaren aldetik hartu behar da: berbete gisa, esakuntza alegia—Chomsky-rekin oso batera, ematen dizkigun berri harri-garriak. Monod-en ustez, lehendabizikoko hizkuntzaren ikastearen karkoa, molekulen beren mailan bilatu beharra dago. Haurrek ama hizkuntza ikasteko erakusten duen erakustunari biologi onihari bat dagokio; buru munean hizkuntzari detxezkoan hutsuneak bete beharra bait legoan. Bigarren eta ondoko hizkuntzetan ez dago honelakorik.

Ezaguera eta hizkuntza, bestalde, fenomeno zahar bakar baten bi aurpegi iruditzen zaizkio Monod-i.

Irakurle askok hartuko du gogotan (gure «moda»ren kontra arras doalako) liburu zahar «animismo»aren kontra egiten dituen kritika bortitzak. Zeri deritza «animismo», ordea, frantses Nobel Sariak? Ez beste lekutan esan ohi dena bakarrik; ez erlijio arkaikoa bakarrik; ezta erlijioa bera bakarrik ere. Gauza bat da «animismo» Monod-en ustez: baloreak eta jakintza, munduaren sentidua eta munduaren izana (Zientziaren aztergaia) nola edo hala ezkondu eta egokitu nahi izatea. Beste hitz batez esateko: Moralari eta Zientzia elkartu nahia.

Monod ez da, honi buruz, bate-re laxoa edo errazkerien aldekoa. Behin eta berriz esaten digu egiaren bilaketa lizifirna zail bat dela, eta ez gizonaren joera berezko bat. Gizona, berez, «soluzio» bat sinestera lerratzen da aisa. Hain zuzen: «azalpen oso baten beharra da gizonarengan berzkoa; eta azalpen hori ez izatea, alderantziz, ezin egon sakon baten iturburua». Hauxe da, Monod-en ustez, animismoaren arrakastarn kokoa: gizonak «ikusi» egin nahi du mundu hau zertara ari den, eta gizonaren biziaz zer sentidu duen. Honetxek azaltzen ditu mytologia mota guzientz zabal-kunde eta iraupen harriargia. Eta horretxegatik —dio— Zientzia ez da oso berandu arte Gizadian sor-

tu; mytologiak eta animismoak, gizona eta naturaleza, egia eta egin-beharra, lotu izan dituztelako, misterioak behin eta berriko «argituz». Hots, jakina denez, Zientziaren oin-harria beste hau da: Zientziak ez duela filosofoi baloreen arazoaz ezer esan behar, Zientziak ald batera utzi dituela esperimintazioaren galbahean eralki ezin ditekian guzia.

Zibernetika zerbaite ezagutzen dutenek ba dakite ordinaroek aisa garbitzen dituztela problemak; bai-na baño ere ezin dezaketela proposa... Hau oso inportantea da: xedeak, eta baloreak eta giza helburuak beraz, Zientziatik at daude.

Kondairaren edo Kosmoaren funtsa, beraz, Zientziatik kanpoko iruditzen zaio Monod-i. Gauza bera esaten dute behin eta berriz Jakintza gizonak.

Marxismoa, hortaz, monismo bat eta azalpen osoki bat den aldetik, funtsez beraz iruditzen zaio Monod-i animismo hutsa eta anti-zientifika.

Marxismotik etorri diren gizaratasuna eta sozialismotik, sustraitik beretik zaizkio kaltegarri: «Le seul espoir du socialisme n'est pas dans une «révision» de l'idéologie qui le domine depuis plus d'un siècle, mais dans l'abandon total de cette idéologie». Sozialismoaren esperantza bakarra ez da orain dela mende bat eta gehiago nagusitu zaion ideologiaren «errebisio» edo eraberritze bat, ideologia horri bazterketa osoa baizik.

Eta indar berriaz agian beste hau: «Gauza erraza zen ikustea ezen materialismo dialektikoa zimenduztat harturik erakia zen kondaira igarlekaria mehatxu guziz beterik zertelera jaiotzatik beretik; eta mehatxu horiek, dakigunez, obratu egin dira».

«Animismo» deritzan hlburu nahasketa hori zaio Monod-i, hitz batez, alienazio guzientz iturria. Egia esateko, eta jator aitortzen du, Monod-ek «ez daki» Zientziaren postuloak eta gizonaren helburu beharrak, Egia eta Absolutu egarria, nola elkar ditekian. Zientziaren oinharria gogorra zaio, eta esan egiten du. Esan ez balu ere, antzemango geniokean, askotan Pascal-en modura hitz egiten duelako. Deihdarrek ez dira urrun, benetan. Biologia molekular delakoa aurkitu dituen mirariak txundituta utzi dute, beste antz biologiarri bezala.

Zientziaren bide hotz eta hertsia-ri etsi behar zaiola iruditzen zaio halere.

Baina, «gutziz onhertzen badu gizonak Zientziaren mezu hau —dio Monodek— esnatu egin beharko du, eta milaka urtetan atxiki duen ametsari utzi; bere bakardad gutzitza, beste sustraitikako bitxikeria aitortzeko, ljiitua bezala ikusiko du orduan bere buruak, bizi behar duen mundutik at. Asmatu duen musikari buruz gor zaion Kosmo hau jakingo du aurrerakoan bere esperantzetik, bere sofrikarioekiko eta bere hilziketik arduragabe eta hotz».

Larresoro



FEDERALISMOARI BURUZ

Erri txikien bentajak eta etorkizuna

«Federalismoa ez da besterik larre motxeko demokrazia elkartua».

Alexis de Tocqueville arras ezaguna dugu.

Parisko irian, 1805garren urtean, jaiotzen.

Amar bat urte geroago, Alemaniako Mosela deritzan errialdean, K. Marxek ikusiko zuen argia, leen aldiz.

Biak pentsalari kartsuak, bata demokraziaren aldetik ta beste sozialismo zientifikoaen sortzaile denez.

Familiko tradizioari bere burua lotuaz, A. de Tocquevillek legeak ikasteari ekin zion, gazte gaztetatik.

1831ko maiatzaren 11n. Ipar-Amerikako Manhattan izeneko izaroan jaxi zen, itsasoz zear ibiltzeaz asperturik.

Egitko berezi bat zeramakien esku artean. Txede zinaz, bear zituen, gertu gertutik, Ipar Amerikako presondegiak ikusi eta ikasi.

Baina, askotan gertatu oi danez, egiteko batekin joan izan arren, beste zertxo bat eginik itzuli zen Tocqueville jauna. ¡Zorionez!

Joan etorri onen frutu edo arnaria izan zen bereala argitaratu zuen «De lo democratie en Amérique» liburua.

Liburu onetaz ez dugu besterik esango urrezko liburu dela baizik.

Aberastasunik ugari ba da liburu aipatuan. Bai orixe. Obra famatu orren edozein txoko miaztea aski da urre puskar arkitzeko.

Alexis de Tocquevillek maite ditut erri txikiak, ta ba ditut zenbait arrazoi erri txikien ber-jabetasuna defenditzeko.

ERRI TXIKIAK ETA ASKATASUNA

Ona emen bere testimoniantza bat: «—Libertadea da erri txikien berezko eguratsa edo klima».

Oraindik geiago beste nonbait: «—Gizaldiak joan eta gizaldiak etorri erri txikiak agertu dira beti egiazko libertadearen seaska».

Puntu onetaz, historia bera zaigu testigu eta lekuko.

Edozein erri, Tocqueville bera mintzo da, naiz eta txikitari «yare-

ta aske» izan, gero azitzen joan zen eran eta neurrian, libertadeak ies egin zion.

Erri andia eta libertade osoa ezin ditezke elkarrekin ezkondu, dio. Erri andien kolkoan ba da naiko lan libertadea gordetzea.

Puntu au bukatzean onela dio Tocquevillek: «—Etorkizunari buruz, igerle edo profeta izen gabe, auxe baietuz liteke, alegia, erri andiak geiago arisatzetan dutela libertadea, txikiak baino.

Itz batez, historiak onetaz adierazten digu libertadea ez dagoela erriari lotuta, baizik erriaren «txikitunari».

ERRI TXIKIAK ETA BIZI MAILA

Libertadea bizi mailari atxikita dagoen zerbaite da.

Erri baten gabezia edo pobrezta ta libertadea ezin ditezke elkarrekin ondo konpondu.

Baina zer gertatu oi da onelako errietan? Agintza andiko biderik ez dagoenean, erriarrak gauza baten bila dabilte, alegia, bizi, ongi bizitzen bila.

Dudarik ez dago. Bizilagunen ugartitasuna, ongi bizitzea ta lasaifituna erri txikietan arkitzen da.

Gabeziarik ez alde batetik ta goiko dirudun mailarik ez bestetik, erdiko giza maila sendoro oniharturik dagoela.

Bitarteko maila onek ematen baitio erriaren egoerari berezko ekilibrio eta egiazko pakea.

ERRI TXIKIAK ETA ABERRIAREN JAIERA

Erri txikietan aberriaren jaiarak erro ta sustrai sakonak ditu.

Erri zabal eta andiak berekin dakarzki aberriaren kontrako etsai amorratuak. Aberastasun geiegikoak eta gabezia lotsagarriak direla, oitura ustelak direla, erriarren berekoitasunen burruka dela ta abar ta abar.

Estadu andiaren berezko arriskuak aberriaren etsai direnak.

Baina, emen, galdera bat ipintzen du Tocqueville jaunak.

Nola, nondik erri txikiak izango du arrotz edo kanpoko etsaien erasoetatik bere libertadea gordetzeko indarra?

Izan ere, beldurraren ezpata zintzilik dagoen artean, libertadea ez da besterik itz utsal eta utsala baino.

Nola, nondik erri txikien indarra? Erri txikiak elkarrekin federatuzetik soili.

Orduan, erri txikiak bere barnekik, txikia danez, ba du libertadea, ta, bestalde, ba du indarra, elkartua edo federatua danez.

Jose Lasa



ZERUKO ARGIA

Zuzendaria:

**MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA**

Argitaratzailea:

**Nafarroako-Kantauriko ta
Aragoiko Kaputxinoak.
(Mayor, 50-1.- Buriada
Pamplona).**

DONOSTIAN:

Oquendo, 22 - Tel. 26666.